

Utopia frustratua (Gizartearen eta politikaren inguruko kezka bat)

Palestina, Kurdistan

Gure herria

Ibex35, Mercadona

Eta aberria

Gizarte eroso lo dago

Esna eta betikoak egiten

Hor tartean ardi beltzak

Izaera beltzez jantziak

Izaera zuria modan dagoen garai hauetan

Eskuina edo boterezaleak beti garaile

Horregatik, eskerrak ezkerari eta haien erresistentziari

Hala ere, utopiak distopia bihurtzen ere ikusi dugu

Otsoek ardi beltzen mozerroa jantzen ikasi zutelako

Eta gizaki karratuek dituzten ideia guztiz borobilak irensten dituztelako ardi zuriek.

Eider



Xanti idazlea (Limerick segida bat)

Izena du Xanti
idazle izateko setati
euskara irakaslea
baita kirolzalea
gipuzkoar petoa izaki.

Xantiren bizitza ez da erraza
dirurik ez eta idazten maila eskasa
baditu ikasketak eta memoria ona
baina nahiko luke zoriona
eta momentuz dena da anasbasa.

Horregatik joan da Gasteizera
hiri batetik bestera
bertan ezagutu ditu lagunak
eta Gasteizko ostegunak
bapatean ez du itzuli nahi etxera.

Ondorioz, erabaki du hemen gelditzea
Gasteiz delako denon etxea
apuntatu da idazketa-tailerrera
Manurekin idazten ikastera
berak ez baitaki zer den etsitzea.

Eider

